

## Ekiten eguna Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Humanitateak- Enpresa ikasten dutenentzat

2007/11/15

Azaroaren 14an, asteazkenez, **Ekiten eguna** izan zen HUHEZIn, jardunaldi bat **ekintzailetasuna sustatzeko** Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Humanitateak-Enpresa ikasten ari diren ikasleen artean. Hori zela-eta, hiru hizlari izan ziren fakultatean: Xabier Letona Argia astekariko zuzendaria, Jose Mari Eraña Arrasate Press eta Arrasate Telebistako sortzailetariko bat eta Mikel Irizar, Goienako lehen zuzendaria.

### Xabier Letona

Argiako zuzendariak bi hitzaldi eman zituen: talde batean **Larrun** gehigarriaz egin zuen berba, noiz sortu zen eta zelan egiten duten. Areto nagusian, ostera, Argia aldizkariaren sorrera eta bilakaera izan zituen hizpide: **1919an** Iruñean Zeruko Argia eta **1921ean** Donostian Argia sortu zirenetik Sareko Argiaraino. Azpimarratu zuen zelan **1980an** gazte batzuek Argia bere gain hartu zuten, eta harrezkero zelan sortu zituzten hainbat eta hainbat produktu, tartean **Larrun, Susa, Apika informatika enpresa, Antza moldiztegia eta, bereziki, Euskaldunon Egunkaria**.

### Jose Mari Eraña

**1988an** Jose Mari Eraña idazkaria eta pertsonal burua zen Arrasateko Udalean. Nekatuta beti elikatzen inguruko berriemaileak erdaraz, pentsatu zuen, Euskara zerbitzuburuarekin batera, komenigarria izango litzatekeela aldizkari bat sortzea, herriko kontuak euskaraz lantzeko. AEDri proposatu eta talde bat osatu zuten, lau talde bat, aldizkaria sortzeko. Baita sortu ere. Eta handik urte eta erdira, telebista, geroago ixteko zorian egon zena, Madrilgo gobernuaren mehatxupean.

### Mikel Irizar

Mikel Irizarren ekarpenik handiena izan zen Arrasate inguruan ziharduten hedabide lokalak egituratzea eta gerora begira jartzea. 1991n horixe egin zuen Arrasate Komunikabideak sortzearekin batera. 2000. urtean, ostera, erronka handiagoa izan zen, Debagoieneko bederatzi herritako hedabideak batu eta antolatu baitzituen erakunde bakar batean, Goiena Komunikazio Zerbitzuak, zeinek erabat berrantolatu baitzituen ibarrean euskarazko hedabideak.

